

PRESTATZAILEEN PRESTAKUNTZA

IRAKASKUNTZA GIDA

1 SARRERA

Hezitzaileen prestakuntza ikastaroak lotura estua du didaktikarekin. Prestakuntza formalaren (hezkuntza-sistema) zein ez-formalaren (enpresa, erakundeak, zerbitzuak) arloan lan egiten duten prestatzaileentzako prestakuntza-proposamenak diseinatzena bideratutako ikastaroa da.

2 NORI ZUZENDUA ETA AURREBALDINTZAK

Ikastaro hau testuinguru formalean (hezkuntza sisteman) eta ez formalean (enpreetan, erakundeetan, zerbitzuetan ...) lanean ari diren pertsonentzako edo egongo diren prestatzaile horientzako proposa da.

Ikastaro hau egoki egin ahal izateko *Didaktika Orokorra* eta *Hezkuntzaren Diseinua eta Berrikuntza* diziplinetako aurre ezagutzak behar dira. Hortaz, hezkuntzako sare terminologikoa eta hezkuntza testuinguruak ezagutu behar dira.

3 HELBURUAK

- Prestakuntza ereduak eta hauen inplikazioa praktikan ezagutzea.
- Formazioaren planifikazio prozesuan kontuan hartu beharreko testuinguruen aldagaiak aztertzea.
- Prestatzaileetan prestakuntza beharrak identifikatzea.
- Diseinu formatiboetan landu behar diren elementuak aztertzea.
- Formazio esku-hartze batek dituen urratsak diseinatzea.
- Proposamen formatiboak era argudiatuan baloratzea.

4 GAITASUNAK

- Profesionalentzat prestakuntza proposamenak diseinatzea, esku hartzeko testuinguruei egokituak.
- Prestakuntzarako hainbat estrategia erabiltzea, hezkuntza-eragileen artean esku hartzeko.
- Erabaki argudiatuak hartzea, esku-hartzeetan hobekuntza proposamenak eratzeko.

5 IKASTAROAREN DESKRIBAPENA

Ikastaro honekin prestakuntza proposamenak diseinatzen ikasten da. Horretarako ikastaroan zehar, bai diseinua eraikitzeke aukeratu den ereduari, testuinguruaren azterketari, behar formatiboak antzemateko prozesuari, eta diseinu formatiboa osatzen dituzten oinarrizko elementuei arreta ipintzen zaie. Halaber, strategi eta teknika didaktikoak garatuko dira, hezkuntza testuinguru formaletan (eskoletan, institutuetan, unibertsitatean ...) eta ez formaletan (enpresetan, erakundeetan, zerbitzuetan ...) kalitatezko hezkuntza bermatu ahal izateko.

6 GAI ZERRENDA

Irakasgai honetan edukiek izaera hirukoitza dute: a) gai bakoitzean kontzeptuak eta ezagutza teorikoak azaltzen eta aztertzen dira, b) gai bakoitzean prozedurak eta berariazko trebetasunak praktikan jartzen dira, eta, azkenik, c) gai bakoitzean jarreretan eta balioetan arreta ipintzen da. Ondorengo taulan gai bakoitzean lantzen diren edukiak laburbiltzen dira (ikus 1. taula):

GAIAK	EDUKIAK
1 Prestakuntza ereduak	1.1 Eredu teknologikoak 1.2 Eredu praktikoak 1.3 Eredu kritikoak
2 Prestakuntza-proposamenak aztertzea eta planifikatzea	2.1 Prestakuntza-testuingurua aztertzea 2.1.1 Erakundeen kultura 2.1.2 Erakundeen klima 2.1.3 Prestakuntzaren eragileak 2.2 Prestakuntza-beharrak aztertzea eta hautematea 2.2.1 Beharrian motak 2.2.2 Beharrak detektatzeko informazio-iturriak 2.2.3 Beharrak ebaluatzeko tresnak 2.2.4 Beharrak triangelatzea eta hautatzea 2.3 Prestakuntza planifikatzea 2.3.1 Zehaztasun mailak 2.3.2 Diseinuen elementuak
3 Prestakuntza-proposamenak eraikitzeke funtsezko elementuak diseinatzea	3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak 3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia 3.3 Prestakuntza-modalitateak eta estrategia metodologikoak 3.3.1 Prestakuntza-modalitateak 3.3.2 Estrategia metodologikoak 3.3.3 Irakaskuntza-metodoak 3.3.4 Prestakuntzarako teknikak 3.4 Baliabideak aukeratzea eta erabiltzea

	3.5 Eszenatoki fisikoa prestatzea eta antolatzea
	3.6 Prestakuntza ebaluatzea
4 Prestakuntza-proposamenak baloratzeko irizpideak	4.1 Balorazioak egiteko irizpide orokorrak 4.2 Balorazio-txostenaren idazketa
1. Taula. Prestatzaileen prestakuntza ikastaroaren gaitegia.	

7 METODOLOGIA

Ikastaro honetan estrategia metodologiko ezberdinak elkartzen dira, esaterako: kasu errealean lanketa gidatua, ariketa kontzeptualen eraikuntza, hausnarketara daramaten irakurgaiak ...

Ikastaro honetan berebiziko garrantzia dauka kasuaren metodoaren lanketak, bertatik abiatuta edukiak lantzen dira.

8 IKASTAROAREN KRONOGRAMA

Ondorengo kronograma lana bideratzeko tresna gisa ulertu behar da. Bertan 12 asteetan zehar gaien sekuentzia ikusten da. *Deskribapena* zutabearen gomendaturiko atalak jasotzen dira: ikasteko materialak eta praktikak. Azaltzen diren ordenan lantzea gomendatzen da (ikus 2. taula).

Asteak	Gaiak	Deskribapena
1 eta 2	1. gaia Prestakuntza ereduak	- Ikasteko materiala. <i>Prestakuntza ereduak</i> - 1. Praktika. Hezkuntza orientabideak - 2. Praktika. Kasua: <i>NI HASIBERRIA. IRAKASTEN IKASTEN</i> - 3. Praktika. Artikulu bati buruzko gogoeta
3 eta 4	2. gaia Prestakuntza-proposamenak aztertzea eta planifikatzea	- Ikasteko materiala. <i>Prestakuntza-proposamenak aztertzea eta planifikatzea</i> - 4. Praktika. Kontzeptuzko ezagutzak praktikan aztertzea - 5. Praktika. Kasua: <i>KAFE MAKINAREN INGURUAN GOGOETAN</i> - 6. Praktika. Artikulu bati buruzko gogoeta
5, 6, 7 eta 8	3. gaia Prestakuntza-proposamenak eraikitzeke funtsezko elementuak diseinatzea	- Ikasteko materiala. <i>Prestakuntza-proposamenak eraikitzeke funtsezko elementuak diseinatzea</i> - 7. Praktika. Ikaskuntza aktiborako metodoak - 8. Praktika. Artikulu bati buruzko gogoeta - 9. Praktika. Teknika didaktikoak berreskuratzea eta baloratzea - 10. Praktika. Teknika didaktikoak aztertzea - 11. Praktika. Arazoa. Prestakuntza diseinu bat eraikitzea

9 eta 10	4. gaia Prestakuntza-proposamenak baloratzea	- Ikasteko materiala: <i>Prestakuntza proposamenak baloratzeko irizpideak</i> - 12. Praktika. Prestakuntza-diseinuak baloratzea eta txosten profesionalak idaztea
11 eta 12	Ikasgaiaren errepeaso	- Autoebaluaziorako galdetegia egin aurretik, ikastaroan landutako materialak birpasatzea gomendatzen da. - Autoebaluaziorako galdetegia.

2. Taula. Ikastaroaren kronograma.

Ikastaro honetan astean 5 ordu eman behar dira, gutxi gorabehera. Guztira, 60 ordu inguru behar dira ikastaroa osatzeko.

9 AUTOEBALUAZIORAKO SISTEMA

Praktiketan jasotzen diren erantzunak, erantzun orientagarri gisa hartu behar dira. Ikasgai honetan proposatzen diren ariketak ez dute erantzun posible bakarra, baina bertan jasotakoak lagungarriak izan daitezke.

Ikasleak ikastaroaren bukaeran test bat errepeaso gisa eskura dauka.

Ondorengo 3. taulan autoebaluaziorako lagungarriak izan daitezkeen ariketak eta praktikak jasotzen dira (ikus 3. taula).

Gaiak	Autoebaluaziorako tresnak
1. gaia Prestakuntza ereduak	- 1. Praktika. Hezkuntza orientabideak - 2. Praktika. Kasua: <i>NI HASIBERRIA. IRAKASTEN IKASTEN</i>
2. gaia Prestakuntza-proposamenak aztertzea eta planifikatzea	- 4. Praktika. Kontzeptuzko ezagutzak praktikan aztertzea - 5. Praktika. Kasua: <i>KAFE MAKINAREN INGURUAN GOGOETAN</i>
3. gaia Prestakuntza-proposamenak eraikitzeko funtsezko elementuak diseinatzea	- 9. Praktika. Teknika didaktikoak berreskuratzea eta baloratzea - 10. Praktika. Teknika didaktikoak aztertzea - 11. Praktika. Arazoa. Prestakuntza diseinu bat eraikitzea
4. gaia Prestakuntza-proposamenak baloratzea	- 12. Praktika. Prestakuntza-diseinuak baloratzea eta txosten profesionalak idaztea

3. Taula. Autoebaluaziorako ariketak.

10 BALIABIDEAK

10.1 Oinarrizko bibliografia

- AMAT, O. (2000). *Aprender a enseñar. Formación de formadores*. Gestión 2000.
- AROSTEGI, M. (2015). Dr. Fleming HLHI-ko Irakasleen prestakuntza beharren diagnosis eta horri buruzko hausnarketa. *Tantak*, 27(2), 9-40.
- BERNABÉ, L. (2003). Experiencia territorial de detección de necesidades formativas. J. Gairín, *Estrategias de formación para el cambio organizacional* (83-87). Praxis.
- BIRKENBIHL, M. (2007). *Formación de formadores*. Pirámide.
- CARRASCO, M. J. (1999). La supervisión clínica como estrategia formativa: un estudio de caso. *XXI Revista de Educación*, 1, 191-201.
- CASTRO, O. eta CASTILLO, I. (2012). Sensibilización y disposición al cambio en la formación de formadores: Perspectivas y retos. *Revista Electrónica Educare*, 16, 73-80.
- CODURAS, O. (2003). Metodología para el desarrollo de estudios para la detección de necesidades de formación. J. Gairín. *Estrategias de formación para el cambio organizacional* (88-92). Praxis.
- DE LA HERRAN, A. (2013). *Técnicas de enseñanza*. Síntesis.
- FERRERES, V. S. eta IMBERNON, F. (1999). *Formación y actualización para la función pedagógica*. Síntesis.
- IMBERNON, F. (2004). *La formación y el desarrollo profesional del profesorado*. Graó.
- LÓPEZ, J. eta LEAL, I. (2002). Aprender a planificar la formación. J. López *Análisis de las necesidades formativas* (57-83). Paidós
- MARCELO, C. (1997). ¿Quién forma al formador? *Revista de Educación*, 313, 249-278.
- MOLINA-HURTADO, Y. A., eta MORENO-CELY, C. P. (2016). La esencia de la formación de formadores en el contexto de la educación a distancia. *Praxis*, 12, 111-117.
- RUIZ DE GAUNA, P. (1996). Teorik eta praktika irakasleen etengabeko prestakuntzan. *Tantak*, 15, 97-112.
- TEJADA, J. (2002). La formación de formadores. Apuntes para una propuesta de plan de formación. *Educar*, 30, 91-118.
- TEJADA, J. eta GIMÉNEZ, T. (2007). *Formación de formadores*. Thomson.
- TORRÉS, J. (2006). Los contenidos culturales, la diversidad cultural y la función de las instituciones escolares. J. Torrés. *Globalización e interculturalidad: el curriculum integrado* (131-152). Morata.

VAILLANT, D. (2002). *Formación de formadores. Estado de la práctica*.
<https://docplayer.es/20879476-N-25-formacion-de-formadores-estado-de-la-practica-denise-vaillant-diciembre-2002.html>

10.2 Sakontzeko bibliografia

- ALONSO ALVAREZ, E. et al. (2001). *La formación del profesorado. Proyectos de formación en centros educativos*. Graó.
- BIDDLE, B.; GOOD, T. & GOODSON, I. (1997). *International Handbook of Teachers & Teaching*. Kluwer academic Pub.
- BONALS, J. (1996). *El trabajo en equipo del profesorado*. Graó.
- BORJAS, M. (2011). La coevaluación como experiencia democratizadora. *Zona Próxima*, 15, 94-107.
- CARDONA, J. (2006). *Formación y actualización en la función pedagógica. Guía didáctica*. UNED.
- COLOM, A. (1994). *Estrategias de formación en la empresa*. Narcea.
- DEL POZO, P. (1993). *Formación de formadores*. Eudema.
- DIKER, G. eta TERIGI, F. (1998). *La formación de maestros: Hoja de ruta*. Paidós.
- FERNÁNDEZ, A. D. (2013). La enseñanza a través del diálogo en la formación de formadores/as. El caso de la Didáctica de la Lengua y la Literatura en un ISFD. *El Toldo de Astier*, 4(6), 56-66.
- HOUSTON, R. (Ed.) (1990). *Handbook of Research on Teacher Education*. Macmillan.
- IMBERNON, F. (1994). *La formación y el desarrollo profesional del profesorado. Hacia una nueva cultura profesional*. Graó.
- MARCELO, C. eta SÁNCHEZ, M. (1993). El profesor mentor. Una nueva figura para el desarrollo organizativo. J. GAIRÍN eta S. ANTÚNEZ (Ed.). *Organización Escolar*. Nuevas aportaciones. PPU.
- MARCELO, C. (1995). *Formación del profesorado para el cambio educativo*. EUB.
- MARCELO, C. (1995). *Desarrollo profesional e iniciación a la enseñanza*. PPU.
- MARCELO, C. (1999). La Formación de los Formadores como espacio de trabajo e investigación: dos ejemplos. *XXI Revista de Educación*, 1, 33-57.
- MÍNGUEZ, A. (2003). *El formador en la empresa*. ESIC.
- MORAL, C. (1998). *Formación para la profesión docente*. Grupo Editorial Universitario.
- NAVIO, A. (2001). *Las competencias del formador de formación continua. Análisis desde los programas de formación de formadores*. Doktorego tesia. Universitat Autònoma de Barcelona.
- PERRENOUD, F. (2004). *Desarrollar la práctica reflexiva en el oficio de enseñar*. GRAÓ.
- RODRÍGUEZ, A. (1995). *Un enfoque interdisciplinar en la formación de los maestros*. Narcea.
- SIKULA, J.; BUTTERY, T., & GUYTON, E. (Ed.) (1997). *Handbook of Research on Teacher Education*. Macmillan.

VILLAR, L.M. eta VICENTE, P. De (2005). *Conocimientos, capacidades y destrezas estudiantiles*. Pirámide.

10.3 Aldizkariak

- Hik Hasi Aldizkaria. <http://www.hikhasi.eus/>
- Profesorado. Revista de currículum y formación del profesorado. <https://recyt.fecyt.es/index.php/profesorado>
- Red-U. Revista de Docencia Universitaria. <https://polipapers.upv.es/index.php/REDU>
- Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado. <https://recyt.fecyt.es/index.php/RIFOP>
- Tantak. Hezkuntzari buruzko aldizkaria. <https://ojs.ehu.eus/index.php/Tantak>
- Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria. <https://www.uztaro.eus/>

11 IRAKASLEA

Salamanca Unibertsitatean Pedagogian doktore titulua lortu eta 2000. urtean doktorego aparteko saria lortu zuen.

Euskal Herriko Unibertsitateko Didaktika eta Eskola antolakuntza sailean irakasle agregatua da (Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean, Gipuzkoako Campusa -Donostia-). Pedagogia Graduan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Masterrean eta Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Masterrean eskolak ematen ditu.

Gipuzkoako campuseko Hezkuntza Laguntza Zerbitzuko koordinatzailea (2009-2018) izan da eta *Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa* Masterreko batzorde akademikoko kidea da. Halaber, *IkasGura* taldeko ikerketa lerroekin *Eskola, Hizkuntza eta Gizarte* doktorego programan parte hartzen du.

Gaur egun, *IkasGura*. *Hezkuntza aldaketa unibertsitatean* ikerketa taldeko burua da <https://www.ehu.eus/eu/web/ikasgura/home>